

Lezoko Udal Aldizkaria

MUNT'TAR

04. zenbakia / 2015eko abendua

Efizientzia
energetikoa

6 or.

Lezoko ibilbideak
Natura, kirola eta ondarea

8. or.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lurralde Zatikako Plana

Lezoko Udalak alegazioa aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailak aurkeztu duen Donostialdeko Lurralde Zatikako Planari (DLZP), bertan aurreikusten diren aktuzioekin ez gaudelako ados. Are gehiago, Lezorentzat kaltegarriak direla uste dugulako.

Egun, gure herriaren ordenamendurako indarrean dagoen Plan Orokorrak ezarrita ditu herriaren hiri antolakuntzarako datozen urteetan jarraitu behar diren irizpideak; zehazten du garapen guneak nola garatu, non zer eraiki; aintzat ditu industria jardueretarako azalerak; izendatuta ditu urbanizagarri ez diren espazioa; finean, adierazten du egin ahal dena eta egin ezin dena.

Gure Plan Orokorrak eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen DLZPk talka egiten dute, ukitu egiten baitu Plan Orokorrak marraztu dituen marra gorriak. Ezin dugu onartu bertan aurreikusten dena, ez baitugu gure herria goitik behera aldatzerik nahi, ez dugulako aldaketa bidezkozten duen pisuko argudiorik ikusten aurkeztu dizkiguten dokumentuetan.

Ez dugu intermodalik nahi Gaintxurizketan; ez azalera logistikorik Pasaiaiko porturako; ezta herria zeharkatuko duen erreperiderik ere. Eta behar den lekuan erreperikatuko dugu behin eta berriro. Ez dugu ahotsa altxatuko, baina argudioz beteko ditugu hango eta hemengo bulegoak.

Plan Territorial Parcial

El Ayuntamiento de Lezo ha presentado una alegación ante el Plan Territorial Parcial de Donostialdea (PTPD) presentado por la consejería de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco. Hemos decidido dar este paso porque estamos completamente en desacuerdo con las actuaciones previstas en el PTPD, porque pensamos que son perjudiciales para los intereses de Lezo.

El Plan General de Lezo, vigente en la actualidad, nos marca los criterios de ordenación territorial a seguir durante los próximos cuatro años; concreta las actuaciones a implementar en las áreas de desarrollo, especificando zonas y edificaciones; tiene en consideración las superficies industriales; asignada los espacios no urbanizables; es decir, marca la hoja de ruta de nuestro municipio.

El Plan General del Ayuntamiento y el Plan Territorial Parcial del Gobierno Vasco no son compatibles, entre otras razones porque el PTP sobrepasa las líneas rojas marcadas por el Plan General. El PTP pretende cambiar la fisonomía de nuestro municipio, sin argumentos de peso para ello, y simplemente, no lo podemos aceptar.

No queremos la intermodal en Gaintxurizkea; tampoco la plataforma logística para el puerto de Pasaia; ni la carretera que cruzará el municipio. Y así se lo hemos hecho saber al Gobierno Vasco, y volveremos repetirlo, una y otra vez, en cada foro que sea necesario. No alzaremos la voz, pero llenaremos de argumentos todas las oficinas.

ALBIS TEAK

Donostialdeko Lurralde Zatikako Planari, alegazioak

EAJREN ETA EHBILDUREN BOTOEKIN ONARTU DA ALEGAZIOAK JARTZEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza zuzendaritzak Donostialdeko Lurralde Zatikako Plana (DLZP) aurreikutzaren ondoren, Udalak alegazioak aurkeztu ditu bertan aurreikusitakoari. Alegazioak EAJko 6 zinegotziek eta EHBILDUko 6 zinegotziek aurkeztu zituzten azaroaren 18an, eta astebebe beranduago, osoko bilkurak berretsi zituen EAJko eta EHBILDUko zinegotzien botoekin. PSE-EEko zinegotziak aurka bozkatu zuen.

DLZPk udalerrirako aurreikusten duenaren aurrean, Lezoko alkate eta zinegotziek kezka handia adierazi dute: "LZPk aurreikusten duena eta Lezoko Plan Orokorra ez dira bateragarriak, bai bata eta bai besteak azalera bera hartzen dutelako. Hain zuzen, guk industria jardueretako gordea daukagun zatiaz ari gara. Eta beste parteak, Jaurlaritzak logistikarako hartu nahi duena, gure Plan Orokorra eremu babestuzat jotzen du.

EAJrentzat eta EHBILDUrentzat handia da LZPk Lezori eskatzen dion ahalegina eta txikia hori onartzeko ematen dieten argudioen pisua. Bertan adierazten da portuko jarduera ekonomikoa indartzeko azpiegitura sortu behar dela Gaintxurizketan. Eta udala ez dator bat ideia horrekin: "Iruditzen zaigu aipatu azalera portuan bertan egonda (eta ez beste inon) izango dela portuko jarduerarako egokien, behin portutik urrunduta desplazamenduek eta merkantzien karga-deskarga bikoizketek garestitu besterik ez baitute egiten jarduera".

Lezoko Udalak aurkeztutako alegazioan Gaintxurizketarako LZPk aurreikusita duena bertan behera uztea eskatzen da, eta Jaurlaritzari alegazioa aztertu eta kontuan hartzea eskatzen zaio.



OrriBakar, partehartze altuarekin

HAMAR LAN SARITU DITUZTE, LIBURUAK EROSTEOKO 75 €KO BALE BANAREKIN

OrriBakar literatura lehiaketa sariketako bigarren edizioa arrakastatsua izan da. Partehartze datuei erreparatu baino ez dago: 1.13 lan aurkeztu dira, lehenengo edizioan baino 28 gehiago.

Pello Añorga ipuin-kontalariak egin ditu epaile lanak. Eta hauek dira irabazleak, mailaz maila:

A maila, 6-7 urte:

- Irati Lobete Sistiaga Laura eta koloretako gaua eta eguna.
- Unai Rebollo Ramos, Mukiak.

B maila, 8-9 urte:

- Ane Jaunarena Cereijo, Kolore gabeko mundua.
- Maddi Artola Sarasola, Mattin Matxinsaltoa.

D maila, 10-11 urte:

- Ibai Olaziregi Landaburu, Tximista baten madarikazioa.
- Asier Olaziregi Landaburu, Nire arraina Manueltxo VII


E maila, 12-13 urte:

- Elena Pais Barral, Perutxo Egungaldu Umetopian.
- Andrea Isasi Neves, Hostoak hasiz zu hurbilduz.

F maila, 14-15 urte:

- Ane Viaña Hernaez, Argi izpi bat.
- Leire Fernandez Mindegia, Gaurko galderak, biharko erabakiak.

Sari-banaketa ekitaldian Kepa Garbizu alkatea izan zen. Irabazleek 75 €ko bale bana jaso dute, liburuak erosteko, eta euren lanak liburutegiko blogean argitaratuko dira.



Zortzi milioi euroko aurrekontua onartu da

EAJREN ETA PSE-EEREN BOTOEKIN ONARTU DA; EHBILDU ABSTENITU EGIN DA

Osoko bilkurak 2016 urterako aurrekontua onartu zuen joan den azaroaren 26an. Horren arabera, Lezok, 8.000.000 euroko aurrekontua izango du 2016 urterako. EAJk eta PSE-EEK Udal Aurrekontuak onartzeko diktamenaren alde bozkatu zuten, eta EHBILDU abstenitu egin zen.

Osoko bilkurak onartu zuen diktamenean jasotzen dira gastuak eta sarrerak. Lehenengoan, garrantzitsuenak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetara (2,797,400 €), pertsonalaren gastuetara (2,765,000 €) eta transferentzia arruntetara (1,182,000 €) bideratu dira.

Sarreretan, berriz, honakoak aurreikusten dira: transferentzia arruntak (3,990,000 €), Zuzeneko zergak (2,446,000 €) eta udalaren

Auzokonposta, urtebetean 22.000 kilo konpostatu dira

95 FAMILIEK PARTE HARTU DUTE ETA UDALAK BALORAZIO POSITIBOA EGIN DU

Auzokonposta egitasmoak urtebeteko ibilbidea egin du Lezon, eta horren harira, Udalak egitasmoan parte hartzen duten familiak gonbidatu zituen lortu diren emaitzak partekatu eta balorazioa egiteko.

Lezoko Udaleko Ingurumen teknikaria eta Elkarrekin 21 Ingurumen Aholkularitzako kideek prozesuaren jarraipena nola egin duten azaldu zuten eta datu esanguratsuenen berri eman zuten.

Egun, 95 familia inguru ari dira auzokonpostan, "hasiera batean aurrekusi genuen kopurura (120 familia) gerturatuz". Urtebetean ia 22.000 kg konpostatu dira, "eta hondakin organiko hauek sortutako tokian bertan kudeatu direnez, hauen bilketari egotzitako joan-etorriengatik sortutako Berotegi Efektuko Gasen isurpenak murriztea lortu dugu".

Oro har, pozik agertu dira emaitzekin, baina jakitun dira hobetu beharreko zenbait neurri hartu behar dituztela. Neurri horien artean daude, besteak beste, zabor organikoa hobeto nahastea edota jarraipena egiten duten teknikariek eta parte-hartzaileen komunikazio hobetzea.



Anfibios y reptiles en Lezo

AYUNTAMIENTO Y ARANZADI EN ARAS DE MEJORAR SU CONSERVACIÓN 965

El Ayuntamiento de Lezo y la Sociedad de Ciencias Aranzadi vienen trabajando en aras de mejorar la conservación de los anfibios y reptiles que habitan en la localidad. Fruto de la colaboración, Aranzadi ha realizado varios muestreos en la zona para actualizar el inventario, resultados que presentó ante la ciudadanía el pasado día 17.

Los muestreos han detectado trece especies diferentes: cuatro anfibios y nueve reptiles. Son las siguientes:

Anfibios: Tritón palmeado (*Lissotriton helveticus*), Sapo partero (*Alytes obstetricans*), Sapo común (*Bufo spinosus*) y Rana verde común (*Pelophylax perezi*).

Reptiles: Lagartija parda (*Podarcis liolepis*), Lagartija roquera (*Podarcis muralis*), Lagarto verde occidental (*Lacerta bilineata*), Lución (*Anguis fragilis*), Culebra lisa europea (*Coronella austriaca*), Culebra lisa meridional (*Coronella girondica*), Culebra de collar (*Natrix natrix*), Culebra de Esculapio (*Zamenis longissimus*) y Víbora cantábrica (*Vipera seoanei*).

Programación Navideña con cine, payasos y teatro

PIRRITX, PORROTX Y MARIMOTOTS PRESENTARÁN AMALUR, SU ÚLTIMO TRABAJO

La programación Navideña organizada por el departamento de Cultura llega a su fin. Pero todavía queda con que disfrutar durante los días festivos.

Concretamente, son tres las actividades culturales que faltan para clausurar la programación. La primera de ellas está programada para el 30 de diciembre en la sala Gezala. A partir de las 16:30 se proyectará la película infantil Horton.

Una semana después, llegará el turno de los payasos Pirritx, Porrotx y Marimotots, que presentarán su último trabajo Amalur. Será el día 5 de diciembre, a partir de las 12:00 en el polideportivo Be-koerrotta. Las entradas están a la venta en Cultura e Internet. El precio es de 5 €

El grupo de teatro de la Ikastola Zurriola cerrará el ciclo el 10 de enero con la obra de teatro Tartufo en el Auditorio Gezala. El precio de la entrada es de 5 euros.



Zaharberitze lan eta inbertsioak efizientzia energetikoaren izenean

Lezoko Udala zenbait neurri hartzen ari da udalerrian efizientzia energetikoa areagotzearen alde. 2009. urtean auditoria bat egin zen ibilbide orria zehazteko. Oinarriak jarri ziren, lehentasunak markatu eta ekintza plana diseinatu argindarraren ustiapenaren optimizazioa helburu. Orduz geroztik, Lezo efizientzia energetikoaren bidean da.

“Efizientzia energetikoa, energia kontsumoa murrizteko praktika da. Kontsumitzaile nagusiak gastuak murrizteko erabil dezaketen teknika, gastuak murrizteaz gain, iraunkortasun ekonomikoa sortzeko”. Horrela azaltzen du Euskal Energiaren Erakundeak efizientzia energetikoa zer den.

Lezoko Udalak 2009. urtean ekin zion efizientzia energetikoa areagotzeko prozedurari. “Auditoria bat egin zen. Momentuko egoeraren argazkia atera, ibilbide orria marraztu eta 2015 urtera bitartean egin beharreko ekintza plana zehazteko. Horixe izan zen abiapuntua”. Ekaitz Bravo Azpeitia Udaleko argiketariaren hitzak dira.

Ekintza planak hiru aktuzio nagusi jasotzen zituen: udal eraikinetako argiteriaren berritzea; herri argiteriaren koadroen zein argi puntuen optimizazioa eta Iberdrolaren fakturen kontrola eta ikusketa.

Neurri horiei esker, zenbait hobekuntza eman direla baieztatu du argiketariak. “Instalazioak hobetu dira, eta instalazio horien biziraupena luzatu da; potentzia neurriak behar izanetara egokitu dira; kaleen argiztapena hobetu da, eta batez ere, aurreztu egin da, bai energetikoki eta baita ekonomikoki ere”.



Reformas e inversiones en aras de mejorar la eficiencia energética

El Ayuntamiento de Lezo realizó en el año 2009 una auditoria con el objeto de mejorar la eficiencia energética del municipio. Se marcaron las prioridades, y se diseñaron los planes de acción a desarrollar, sobre todo, en tres ámbitos: renovar la luminaria en los edificios municipales, optimizar los cuadros y puntos de luz y revisar las facturas de luz.

Inbertsioak, nahitaezkoak

Efizientzia energetikoan irabazteko, Lezoko Udalak inbertsioak egin behar izan ditu, nahitaez. “Inbertsiorik gabe ez dago efizientzia energetikorik” argitu du Ekaitz Bravok. Esate baterako, udal eraikinetan burutu diren inbertsioak egiteko. “Argiteriaren berritzea burutu dugu, teknologia efizienteagoekin ordezkatzu edota berokuntza sisteman energia iturriak aldatuz”.

Bi ekintza plan nabarmendu ditu, biak bukatzeaz dagoen urtean egindakoak. Batetik, kiroldegian burutu dena instalakuntzaren berokuntzarako gasoil galdara gasezkoagatik aldatuz eta kanporatzen den uraren beroa berreskuratzeko makina instalatuz. Horrela, elektrizitate gutxiarekin gas energia aurrezteko aukera bikoiztu da.

Bestetik, Tomas Garbizu Musika Eskolan eta Haurtzaindegian egindakoa. Zaharkituriko argiteria LED sistemarekin berritu da. Argiketariak emandako datuen arabera, “% 75eko aurrezpena” lortu da.

Zaharberitze lanek ere protagonismo handia hartu dute. Gehienak herri argiterian eman dira: koadro elektrikoak aldatu, potentziak murriztu eta fluxu erregulatzaileak kokatu dira. Hemen kokatu behar dira:

- 2013 urtean Arretxene-Txulotxo-Plazeta inguruan egindakoak, “argiteriko luminaria guztiak ordezkatu eta fluxu erregulatzaileak kokatu ziren, fase ezberdinen orekatzea gauzatu zen eta potentzia murriztu zen. Ondorioz, % 60ko murrizteka lortu zen”.
- 2014 urtean Altamirakoak, “koadroa berritu zen, faseak orekatu ziren eta luxu erregulatzailea kokatu zen. Ondorioz, % 40ko murrizteka lortu zen”.
- Urte berean bolo itsurako lumimaria zaharrak ordezkatu ziren, “potentzia eta kutsadura luminikoa murriztuz”.

Neurri hauen artean izarra, Inerdatu zerbitzuaren ezarpena nabarmendu dute Hirigintza eta Obra departamentuko arduradunek. Zerbitzu honek udalerriko eraginkortasun energetikoa etengabeko hobekuntza bidean jarri du. Zerbitzua faseka ari da ezartzen. “Herri argiteria osoaren mantnimendurako geokopakenezko datu basea ezarri da, eta zenbait eraikin –udaletxea, Herri Eskola, Iturrin Poligonoa, eta abar– uneoro monitorizatzen sistema jarri da urteko informeak jaso ahal izateko. Neurri honek hobekuntzak egiteko aukera ematen digu”, azaldu du Ekaitzek.

Fakturen kontrola

Hirugarren ekintza plana izan da; guztiak errebi-satu dira. “Kasu gehienetan, kontratazioak aspaldikoak ziren. Beharrak aldatzen joan dira, eta egungo garaietara egokitu ditugu potentziak egokituz eta erabiltzen ez ziren instalazioen kontratua etenez. Emaitzak ikaragarriak izan dira”.

Besteak beste, Martixkoneko urtegiko hornidura eten da, eta gauza bera egin da Kale Nagusiko 26an kokatutako lurpeko kontainerrekin, frontoiaren atzealdeko koadroarekin edota Zahar Egoitzako koadroarekin, “berrituz, berogailu sistema optimizatuz eta potentzia kontratua murriztuz”.

Inbertsio horietako batzuk burutzeko Udalak diru-laguntzak izan ditu: Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Euskal Energiaren Erakundetik. “Laguntza hauek ezinbestekoak dira, efizientzia energetikoa areagotzera bideratuta daude”, zehaztu du argiketariak.

Etorkizunean, bide beretik jarraitzea da asmoa. Horrela esan digu Xubero Ubillosek, Hirigintza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak departamentuko arduradun politikoak: “Azpiegitura zaharrak berritzen joan behar dugu. Herri argiteri sarea guztiz zaharberritzen badugu, Lezon efizientzia energetikoa areagotzen jarraitzeko aukera izango baitugu”.



Arkaitz Angiozar

Lezoko Udaleko kirol teknikaria

Lezoko ibilbideak: kirola, historia, kultura eta natura “Herritarrak aktibatu nahi ditugu jarduera fisikoa egiteko aukera berria eskainiz”

Luzera eta zailtasun maila ezberdineko hiru bide egokitu dira adin ezberdineko herritarrei zuzenduta. Udalak Lezoko Ibilbideak egitasmoa aurkeztu berri du, udalerrian zehar egokitu dituen hiru ibilbideen berri emateko: Xoxolurra Alarguntza, Olazar Lorbide eta Altamira Bordatxo. Joxe Mikel Garmendiak eta Landar Zurutzak idatzi zuten Lezoko ibilbide pedagogikoak liburua dago oinarrian, eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du. Arkaitz Angiozar kirol-teknikariarekin elkartu gara proiektuaren inguruko xehetasunak jasotzeko.

Udalak zein helbururekin jarri du martxan Lezoko ibilbideak egitasmoa?

Arkaitz Angiozar: Udalaren helburuen artean lezoarren bizi kalitatea hobetzea dago, eta horretarako, besteen artean, herritarrak aktiboagoak izatera lagundu. Ziurtatuta baitago modu horretan euren osasuna hobetzen dela, eta bizi-poza areagotu. Beraz, Lezoko ibilbideak egitasmoarekin herritarrak aktibatu nahi ditugu, jarduera fisikoa egiteko aukera berria eskaini nahi diegu. Balio erantsia du gainera, jarduera fisikoarekin batera Lezoko ondare naturala, historikoa eta kulturala ezagutzeko aukera ematen diegulako. Jaizkibel babestea eta naturarekiko errespetuzko jarrera bultzatzea ere badira bigarren mailako helburuak.

Elkarlanean bideratutako egitasmoa dela nabarmendu zuten prentsurrekoan. Noren artekoa?

A.A.: Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Zahartze aktiboa sustatzeko programarekin bideratutakoa izan da, akuilu funtzioa bete du –Osasun Saila, Osakidetza eta udaleko bost sailletako ordezkariak aritu dira elkarlanean–. Bestalde, Joxe Mikel Garmendiak eta Lander Zurutzak 2005 urtean argitaratu zuten Lezoko ibilbide pedagogikoak liburuan oinarritu garenez, idazleekin elkarlanean aritu gara. Udal gobernuaren aspaldiko kezka eta asmoa zen liburuak jasotzen zuen material baliotsu hori herritarren eta bisitarien artean zabaltzea. Aurreko legealdian hasi ginen lanean, eta bertan hiru sail aritu gara: Ingurumena, Kultura eta Kirola.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du. Zein izan da aurrekontua?

A.A.: Asmo handiko egitasmoa da, 25.000 euroko aurrekontua duena. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 5.027 euroko diru-laguntza eman digu, eta beraz, Jaurlaritzari eskerrak ematea tokatzen da.

Norentzat dira ibilbideak?

A.A.: Adin guztietako pertsoneri zuzendutakoak dira nabarmendu nahi dut, bakoitzak bere erara erabiltzeko: lasai-lasai paseatzeko, korrika egiteko, bizikletan joateko, horren modako dagoen Nordic Walking-a praktikatzeko, eta abar. Bestalde, azpimarratu nahiko nuke biztanleen arteko harremanak estutzeko baliagarria izatea nahi dugula, familian, lagunartean, edota antolatutako irteerak egiteko aukera ematen baitu.

Zein ezaugarri ditu ibilbide bakoitzak?

A.A.: Hirurretan luzeena Xoxolurra Alarguntzako da. Jaizkibeleko hegoaldeko magala zeharkatzen duen 11 km-ko mendiko ibilbidea da, hiru bat ordu eta erdian egiteko. Oinez egiteko diseinaturia, baina mendian ibiltzea ohituta daudenentzat gomendatua. Ikuspegi panoramiko ederrak eta garrantzia kultural eta historiko handia duten elementuak ikusi daitezke bertan.

Olazar Lorbidekoaz zer esan dezakezu?

A.A.: Erdi mailako mendi-ibilbidea dela, edonork oinez egiteko pentsatua. Ibilbidea Jaizkibelen hegoaldeko doa eta baserri ederretako auzoak zeharkatzen ditu. Nabarmenezkoak, antzinako animalientzako bideen aztarnak eta Plataiturri iturria. 4,5 km-ko luzera du, bi ordu baino gutxiago egin daiteke.

Hirurretan laburrena Altamira Bordatxokoa da.

A.A.: Ez da iristen hiru kilometro t´erdira. Paseo atsegina eta gomendagarri edonorentzat, asfaltatu-

tako ibilbidean. Altamira zeharkatzen du eta landa lursail tipikoetatik zehar murgiltzen da, Darietazarra eta Miura bezalako baserri garrantzitsuenak pilatzen diren lekuetan.

Herritarrak ez dira galduko. Arreta berezia jarri duzue seinaleztapenean, ezta?

A.A.: Hala da. Hiru ibilbideetan seinaleztapen bertikala jarri da, norantza edo interes-gune seinaleekin. Horretaz gain, panel informatiboak jarri dira: informazio guztia jasotzen duena Bekoerota kiroldegian dago (ibilbideak, kirol eta osasun gomendioak, eta abar) eta beste bat Xoxolurrako sarreran informazio laburtuagoarekin. Guztira, 40 seinale bertikal eta 3 informazio panel daude.

Prentsurrekoan aurreratu zuten gizarteratze fasea udaberriko utzi duzuela.

A.A.: Neguko sasoi hau ez da egokiena antolatu nahi ditugun egitasmoak bideratzeko, eta Udaberriera atzeratzea erabaki dugu, partehartzea bermatu asmoz. Hilabete honetan egiten ari den eguraldia ikusita, ez dakit erabakiarekin asmatu dugun.

Zer egitea aurreikusi duzue?

Printzipioz, hiru ekintza egingo ditugu: ibilbide gidatuak, herritarrei eta kanpotarrei ibilbideak aurkeztu eta ondare historiko-naturalaren berri emateko; udalerriko ikastetxeentzako tailerra, ordu eta erdi ingurukoa eta ikasleei egokitutakoa; eta azkenik, argazki rallya, partehartzaileen irudiekin erakusketa antolatzeko asmoarekin.

Bitartean, non topa dezakegu ibilbideen inguruko informazioa?

Informazioa www.lezo.eus web gunean dago, ibilbideak azpi-atalean. Udal eraikinetan eta eskualdeko turismo bulegoetan, beriz, eskuorriak banatu ditugu. Mugibili web gunean ere aurki daitezke ibilbideen inguruko informazioa.

Rutas de Lezo, una propuesta para conocer el patrimonio histórico-cultural y natural

El Ayuntamiento acaba de presentar las tres rutas que conforman Lezoko Ibilbideak: Xoxolurra Alarguntza, Olazar Lorbide y Altamira Bordatxo. El proyecto, además de impulsar una forma de vida saludable, pretende dar a conocer el patrimonio histórico-cultural y natural del municipio.

Las rutas están diseñadas para que todo tipo de personas puedan disfrutar de ellas –el nivel de dificultad o la longitud varía de una ruta a otra– y practicar diferentes modalidades deportivas como pasear, correr, andar en bicicleta o practicar Nordic Walking.

IRI
TZIA

Sartuak gara jada legealdiaren egunerokoan, kokatzeko eta gauzei neurria hartzeko behar izan dugun denbora hartu ondoren, ari gara jardunean. Beharrak ditu herriak, era askotarikoak: zerbitzuen eskaintzari dagokionak, bizikidetzak eragin-dakoak...

Zorionez, teknikari onak ditu Lezoko udaletxeak, egunerokoak funtziona dezan bermatzea posible egiten duten pertsonak, baina ordezkari politikoi dagokigu bidea markatzea, zer indartu eta zer ez erabakitzea, irizpideak finkatu ondoren herriak bide batetik eta ez besteetatik aurrera egin dezan. Ezagun dira guk ireki nahi ditugun atea hizkuntzaren bidean, gizonei eta emakumeei aukeren parekotasunaren borrokarenean, lantegiei laguntzekoetan...

Lezoko lantegiei laguntza eskaintzeko asmoz, onartu berri dugu Gaintxurizketa aldean industria jardueretarako hirigintza plana aurrera eramatea, etorkizun hurbilean poligonoetako enpresek izan ditzaketen azalera beharrei erantzun ahal izan diezaiegun. Erabaki berri dugu, halaber, Gaintxurizketako intermodalari eta logistikarako azalera okupatzeari ezetz esatea, ulertu baitugu Lezori begirako egitasmoa baino gehiago kanpokoari begira eginiko plana dela.

Hondakinen bilketa sistema lisar iturri izan dugu herrian; esana da edukiontzien sistema hobesten duela EAJk herrirako; datorren udaberrian izango dugu bilketa sistemaren gainean erabakitzeak aukera. Normalizazio politikorako oinarriak ezartzea eguneroko lana da; herriak bide berri batetik ibilbidea egin ahal izan dezan aukerak ezartzea guztion egitekoa da, horretan saiatu eta tematzea.

Erronka handi horiez gain, eguneroko kontu txikiak ahaztu gabe noski.



Lehenik eta behin agur bero bat lezoar guztioi.

Iragan udal hauteskundeetan EAJ alderdi bozkatuena izan eta PSEren laguntzaz alkatetza eta gobernua eskuratu ondoren, oposizioan lan egitea dagokigu legealdi honetan.

Eskerrik beroenak gudan konfiantza jartzen jarraitu duzenoi. Gainontzeko lezoarrei berriz konfiantza berreskuratzeko ahaleginak egingo ditugula esan nahi dizuegu. Akatsetatik ikasi eta Lezoko herritarren alde lanean jarraitu nahi dugu hurrengo 4 urteetan ere eta horretarako berriro ere bidelagun izan nahi zaituztegu. Elkarrekin aritu, garai bateko auzolanaren filosofia berreskuratu, merezi duen balioa eman eta auzolana zena herrilana bihurtu nahi dugu.

Zenbaitetan, instituzioetan egoteak, lan egiteko modu hori ahaztu izana ekarri digu. Hori aldatu eta gure lan egiteko moduaren giltzarria, inoiz baino gehiago, herrilana izatea nahi dugu.

Legealdi hasieran izan ditugu Lezoko garrantzi berezia duten gaiak. Lurralde Zatikako Plana izan dugu adibide. Gaintxurizketan eta Lezoren eragingo lukeen kalte ikaragarriaren aurrean, herritar talde bat elkartu eta lanean hasi zen. Guk ere beraiekin batera egin dugu lan. Elkarrekin lan eginaz Lezoko Udalak herritarren alde egitea lortu dugu EAJ alderdiaren interesen gainetik.

Alkateren gaitasun falta agerian geratu da gai honetan. Kezka handia sentitu dugu EAJ-PSEk izandako arduragabekeriagatik. Baina zuekin batera eginiko lanari esker EAJ-k jarrera aldatzea, eta Lezoko herriaren alde jartzea lortu dugu. Zinez pozten gara eta herritarrek zoriondu nahi ditugu egindako lanagatik. Honek behar du bidea.



El objetivo del PSE-EE es poner en marcha un pueblo parado y desbordado en las últimas Legislaturas, de forma que ocupe la posición que merece en la comarca de Oarsoaldea tanto en lo económico, como en lo social y lo cultural, convirtiéndolo en un pueblo amable y atractivo para sus vecinos.

Los socialistas de Lezo nos hemos convertido en clave en la gobernabilidad y en la gestión del Ayuntamiento y eso se está empezando a notar. Así, hemos conseguido que la Diputación de Gipuzkoa destine una partida de 236.000 € para financiar diferentes trabajos de inversión, incrementado la partida de las ayudas sociales y la disminución de impuestos.

Nos comprometimos a poner en marcha un plan de empleo ambicioso y hemos dotado para ello en el presupuesto 2016 una partida de 200.000 € (60.000 en 2015). Igualmente hemos conseguido incorporar una partida de 200.000 € para elaborar un plan de accesibilidad así como ayudas al comercio de proximidad.

Egiteke asko dago, badakigu. Atez atekoak herrian utzitako haustura konpondu nahi dugu 2016an. 5. eduki-ontziaren alde gaude: txiparekin, borondatezkoa eta gain-sari fiskalekin. Eta galdeketa egin behar bada, aurrera, baina herriaren borondatea segituan aplikatu dadila.

Gaszteentzat alokairu soziala sustatu nahi dugu; kultura, kirola eta hezkuntza mailako eskaintza aberastu; elkarlan sareak indartu; herriko kale eta parkeen garbiketan eta mantenuan hobekuntzak exijitu. Horretarako, ezinbestekoak dira herriaren partehartzea eta gainontzeko alderdi politikoen lankidetzak.

IN
KES
TAK

Udalak hiru ibilbide egokitu ditu udalerrian zehar. Luzera eta zailtasun maila ezberdinekoak dira, familian edota lagunartean egiteko aproposak. Kalera atera gara herritarren iritzia jasotzeko. Hona hemen lagin txiki bat. **Jarraian, herritarren iritzia.**



YON AXEL ESCUDERO GÓMEZ

Idea ona da. Moto zalea naiz, eta Jaizkibelera sarritan joaten naiz lagunekin eguna pasatzera. Motoz joaten gara; alper xamarrek gara. Baina Lezoko ibilbideak egitasmoa interesgarria iruditzen zait, batez ere Lezoko herritarren aisialdirako. Jaizkibel ingurua ederra da, eta ariketa fisikoa egiteaz gain, bertako paisaiarekin gozatzeko aukera bikaina da. Baliteke egunen batean motorra utzita ibilbideren bat oinez egitera joatea.



ALAIN SAMANIEGO TOBIÁS

Proiektua oso interesgarria iruditzen zait. Egia aitortu behar badut, ez daukat ibiltzera joateko ohiturarik baina, baina egitasmoa ezagututa, zergatik ez animatu ibilbideak ezagutzera. Lezoarrontzat leku kuttuna da Jaizkibel, askotan gerturatzen gara. Nire kasuan, lagunekin joatea gustatzen zait; hori bai, normalean autoz edo motorrez joaten gara. Kirola egiteko ohitura duten herritarrek eskertuko dute ibilbideak etxetik gertu izatea.



MARÍA FERNÁNDEZ

Me parece estupendo ofrecer a las personas que acostumbran a pasear tres nuevas rutas con unas vistas preciosas. En mi caso, no salgo mucho a pasear y menos al monte. Las veces que he subido al monte Jaizkibel ha sido en coche, a pasar el día con la familia. Pero el proyecto me parece atractivo y puede que me anime a realizar una de estas rutas con mi familia. Sobre topo me parece muy interesante para los niños y niñas, para que vayan acostumbrándose a hacer deporte.



IÑINTZA FRESNEDO ETXABE

Lezoren mendizaletasuna oso hedatuta dago, eta asko dira Jaizkibel mendira gerturatzen diren herritarrek. Beraz, ongi-etorria izan dadila. Haurrek asko disfruta dezaketela iruditzen zait; beste arnagune bat izan liteke haienentzat. Herrian edo parkean solasean aritu ordez, ibilbideek beste aukera bat eskaintzen dietela iruditzen zait. Pertsonalki, ez dut ibiltzeko ohitura handirik. Egunen batean agian animatuko naiz ibilbideak ezagutzera.

LEZO ZURI BELTZEAN

